



ALEGIAKO ORRIE

ALEGIAKO ORRIE - 2019ko uztaila // Argitaratzailea: Alegiako Udala

Erredakzioa eta diseinua: Goioa // Inprimaketa: Garaiko

POLITIKA

ARANTXA IRAZUSTA ETXEBERRIA, ALKATE

Iragan maiatzaren 26an ospatu ziren Udal Hauteskundeetan hiru zerrenda aurkeztu ziren Alegian. EH Bildu, Aurrera Alegia eta PSE-EE izan ziren zerrenda horiek eta lehen biek lortu dute ordezkari-tza Udalean.

EH Bilduk 481 boto jaso zituen eta bost zinegotzi izango ditu. Aurrera Alegia zerrendak 421 boto lortu zituen eta lau zinegotzi izango ditu. PSE-EEK 14 boto jaso zituen eta ez du ordezkari-tzarik izango Uda-

lean.

Emaitza horiekin, ekainaren 15ean osatu zen Alegiako Udal Gobernu berria. EH Bil-duko zerrendaburua zen Arantxa Irazusta Etxe-berriak hartu zuen alka-te kargua, azken zortzi urteetan karguan izan den Unai Iraolarengan-dik aginte makila jasoz. Irazustarekin batera, Ana Usandizaga, Unai Iraola, Eider Zubillaga eta Amaia Jimenez izan-go dira EH Bilduko bes-te kideak.

Aurrera Alegia hau-

tagaitzak lau zinegotzi izango ditu. Regina Sorarrain, Andrea Larra-ñaiga, Maialen Landart eta Pili Palomares izan-go dira Udal Gobernu osatuko duten beste lau kideak.

Kargu hartze ekital-dian udal gobernu berria osatuko duten zortzi emakumeek eta gizonezko bakarrak kar-guen zina egin zuten eta ondoren alkatetzarako hautagaiaren inguruko bozketan egin zen. Arantxa Irazusta Etxe-berria izan zen aurkeztu

zen hautagai bakarra eta aldeko bost bozka izan zituen eta lau bozka zuri. Emaitza horrekin, alkatetza eskuratu zuen lehen bozketan.

Orain arte alkate kar-guan egon den Unai Iraolarengandik aginte makila jaso berritan har-tu zuen hitza Irazustak. Alkate kargua erantzuz-gizunez, ilusioz eta lanerako gogoz hartzen duela adierazi zuen eta inguruan duen lan tal-dearen laguntzarekin, herriaren alde lan egi-terko konpromisoa

berretsi zuen. Udalean sartu den Aurrera Ale-giari elkarlanerako eskua luzatuz amaitu zuen bere hitzaldia eta ondoren, zerrenda horretako buru den Regina Sorarrainek har-tu zuen hitza.

Udalean oposizio eraikitzailea egiteko asmoarekin sartu direla esan zuen Sorarrainek eta elkarbizitzan oina-rrituta Alegia hobetzeko lan egingo dutela gaine-ratu zuen. Udal talde berriaren argazkiarekin amaitu zen saioa.



FESTAK

UZTAILAREN 12TIK 16RA OSPATUKO DIRA



Uztailarekin batera heldu zaizkigu Alegiako jaiak. Aurtengoan hilaren 12an, ostirala, hasi eta hilaren 16an, astearte, amaituko dira. Ohi bezala, Festa batzordeak ahalegin berezia eragingo du ahalik eta

egitaraurik anitzena osatzeko eta lerro haue-tatik, egindako lana eskertu nahi zaie, batzordeko ateak herritar ororentzat zabalik dudelako gogoraraziz. Alegiako Udalak herritarrak festetako

ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditu eta aldi berean, festetan ondo pasatzeko gonbitea luzatzen die. Azpian duzue aletuta Alegiako jaietako egitarau zabala. Ondo pasa!!

EGITARAUA

OSTIRALA, 12

- 17:00.** Haurren Santos futbito torneoko finala eskolako patioan.
- 18:30.** Billabonako erraldoi eta buruhandiekin, Loatzo musika eskolako musikariekin eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira Larraitz auzotik plazaraino. Kartel lehiaketan parte hartu duten mazzkien erakusketa udaletxeko arkupetan.
- 19:00.** Kontzentrazioa plazan "Euskal preso eta iheslariak etxera" lemapean.
- 19:00.** Txupinazoa Udal talde berriaren eskutik. Segidan, Txintxarriaren jaitsiera.
- 21:00.** Zahagiardoa zubian.
- 22:30.** Bertso saioa Elizpe zinean. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Eli Pagola, Maddalen Arzallus eta Imanol Irazustabarrena. Gai jartzailea: Imanol Artola "Felix".
- 00:00.** Niña Coyote eta Chico Tornado eta Ze Esatek! taldeen kontzertuak plazan.

LARUNBATA, 13

- 09:00.** Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.
- 12:00.** Sagardo dastaketa txorizo eta sardina errekin. Eguzkitza, Sarasola, Isastegi, Zalbide eta Aulia sagardotegiak. Irma Karrera eta Jokin Tolosa trikitilariekin.
- 15:00.** Alegiako IV. Goitibehera jaitsiera Galarreta baserriko bidean.
- 18:00.** Pilota jaialdia Elorri pilotalekuan. Alegiako IX. txapelketako finalak. Neskak palaz, mutilak eskuz binaka. Profesionalak: Artola-Urretabizkaia / Bengoetxea-Aranguren.
- 21:00.** Zahagiardoa Larraitz auzoan.
- 23:00.** Deabru Beltzak taldearen "Les tambour de feu" kale ikuskizuna.
- 00:00.** DJ Josu Rodriguez plazan.

IGANDEA, 14

- 09:00.** Kalejira berezia herriko txistulari ohiekin.
- 11:00-14:00.** Haur parkea eskolako patioan.

- 12:15.** Leiho eta balkoi lehiaketako sari banaketa.
- 12:30.** Aire Ahizpak taldearen emanaldia.
- 16:00.** Haur parkea eskolako patioan.
- 18:00.** Apar festa.
- 18:30.** Herri kirolak Larraitz auzoko plazan. XIII. Txintxarri Saria. Gipuzkoako harri txikien txapelketa.
- 19:30.** Tio Teronen Semeak taldearen "Festamentua" ikuskizuna plazan.
- 21:00.** Zahagiardoa plazan.
- 23:00.** Fan&Go taldearekin erromeria.

ASTELEHENA, 15

- 09:00.** Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.
- 09:00.** Jubilatuek antolaturiko mendi ibilaldia.
- 11:00.** Jubilatuen hamaiketako.
- 14:00.** Umeen bazkari herrikoia plazan.
- 15:00.** Haurrentzako playbacka. Ondoren, zumba saioa.
- 16:30.** "Gora kasete" haur antzerkia plazan.
- 18:00.** Haurrentzako txokolatea.
- 18:30.** Herritarren arteko toka txapelketa. 12-15 urte bitartekoen maila eta 16 urtetik gorakoena.
- 21:00.** Zahagiardoa plazan.
- 23:00.** Sara Zozaya eta Nerabe taldeen kontzertuak plazan.

ASTEARTEA, 16

- 09:00.** Patxaranga txarangarekin diana.
- 09:00.** 3x3 saskibalo txapelketa eskolako patioan.
- 12:30.** Sutari dantza taldearen emanaldia plazan. Ondoren Patxaranga txaranga kaleetan.
- 18:00.** Umeentzat jolasak herriko gazteen eskutik, eskolako patioan.
- 19:30.** Harresi taldearekin erromeria.
- 21:00.** Zahagiardoa plazan.
- 23:00.** Harresi taldearekin erromeria.
- 00:00.** Txintxarria erre eta jaiak agurtuko ditugu.

Gainerako herritarrekiko begiruneagatik besterik ez bada ere, herrigunean **TXA-KURRAK LOTUTA** eramatea **DERRIGO-RREZKOA** delako gogorarazten zaie txakurren jabeei.

Txakurren **kakak txakurren jabeek beraiek jaso behar dituzte**, eta **errefusa** jasotzen den edukiontzira bota. Txakur arriskutsuei **bozala** jarri behar zaie. Elkarbizitzaren alde hartu beharreko neurriak dira.

La versión en castellano de Alegiako Orrie está **disponible en el Ayuntamiento** para todos aquellos ciudadanos que deseen consultarla. Los vecinos que quieran **recibir en su domicilio la versión en**

castellano de Alegiako Orrie, tendrán la opción de **solicitarla en el Ayuntamiento** facilitando los siguientes datos: nombre, apellidos y dirección. El Ayuntamiento se encargará de mandar la revista a los domicilios.

BIBALABIRJEN JAIK

Aurten ere Bulebarrean izango da zer ikusi eta zer gozatua. Uztailaren 10ean hasi eta hilaren 14ra bitartean gazteek prestaturiko egitarauaz gozatzeko aukera izango da. Ohi bezala, asteazkeneko sagardo dastaketa izango da egitarauko hitzordu garrantzitsuetako bat eta ostiraleko Mozorro Egunean ere bete-beteko egitaraua izango dute bazkari, jolas, txaranga eta kontzertuekin. Igandean herriko bertsolarien ohiko saioarekin emango zaie amaiera.

EGITARUA**ASTEAZKENA, 10**

17:30. Santosen omenezko futbol txapelketako finalak.
19:00. Sagardo dastaketa trikitalariek.
19:30. Preso eta iheslarien aldeko argazkia.
21:00. Zahagiardoa.
00:00. Soinuz blai taldearekin erromeria. Amaieran aulki jokoa.
06:00. Gaupargazkia.

OSTEGUNA, 11

18:30. Antzerkia. Txikiren bakarrizketa. "40 urte eta aldapan behera niek".
21:00. Zahagiardoa.
22:30. Kontzertua: Unidad Alavesa.

OSTIRALA, 12 (Mozorro Eguna)

12:30. Frontenis txapelketa.

14:30. Bazkaria. Ondoren, koadrilen arteko jolasak.

19:00. Gaztetxeko batukada.

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Reggae gaua: Stepi Seлектah, Ziribulio Sound eta Bass Agaieneko DJak, Bass Again soinu sistemak girotuta.

06:00. Elektropapo elektrotxaranga.

LARUNBATA, 13

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Kontzertuak: Desegin, Basati eta Herenegun.

IGANDEA, 14

18:30. Kontzertu akustikoa: Taupada.

21:00. Zahagiardoa.

22:30. Herriko bertsolariak.

* Txoznan bokadiloak egongo dira Alegiako Basket taldeko kideen eskutik.

SEXU ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOA

Aurten ere sexu erasoen aurkako protokoloa martxan izango da Alegiako jaietan. Bi egitarauak kontuan hartuta, uztailaren 10etik 16ra bitartean luzatuko dira jaiak eta egun horietan guztietan egongo da martxan protokoloa.

Iaz bezala, telefono zenbaki bat egongo da erasoak salatzeke. Aurten 606 797 135 izango da telefono zenbaki hori eta 24 orduz egongo da martxan.

Etxera taldean joateko hitzorduak ere izango dira asteazken, ostiral eta larunbat gauetan. Asteazkenean 2:00etan, eta ostiralean eta larunbatean 3:00etan eta 5:00etan. Hitzordu horiek Orendaingo bideturuztean izango dute elkargunea.

Ostegunean, igandean, astelehenean eta asteartean, gutxienez lau pertsonako talde bat osatuko balitz, 606 797 135 telefono zenbakira

deitu eta ordubetean, arduradun batek etxera lagunduko die.

Aurtengo beste berrikuntza, besokoekin ibiliko diren arduradunena izango da. Erasoren bat ikusten edo jasaten duenak, pertsona horiengana jo ahal izango du laguntza eske.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie aurten ere protokoloa garatzen eta gauzatzen lagundu eta lagunduko duten eragile guztiei.

FESTEN INGURUKO HAINBAT OHAR

■ Uztailaren 12an, 13an, 14an, 15ean eta 16an, ostirala, larunbata, igandea, astelehena eta asteartea, hondakin kuboak 14:00ak aurretik atera beharko dira, bilketa arratsaldean egingo delako.

■ Uztailaren 12ko arratsaldetik uztailaren 17ko goizera, Alegiako erdigunea itxita egongo da ibilgailuentzat.

■ Uztailaren 13 arratsaldetik uztailaren 17ko goizera, eskualdeko lineetako autobusek Alegi Pentsoak lantegiaren aurrean izango dute herriko geraleku bakarra, Fabrensa industriagunean.

■ Uztailaren 13an, 14an, 15ean eta 16an jubilatuen memoria tailerreko erakusketak egongo da udaletxeko pleno aretoan 11:00etatik 13:00era.

GIZARTEA

TXINTXARRIAK MARTXANEN HIRUGARREN URTEA

Ekainaren 20an amaitu zen Txintxarriak Martxan ekimenaren bigarren denboraldia. Adineko pertsonak ariketa fisikoa egitera bultzatzea eta beraien arteko harremanak sustatzea dira ekimen honen helburuak eta aurreko denboraldietan bezala, hirugarrenean ere, jasotako erantzunarekin pozik agertu dira Udal ordezkariak eta Udalarekin elkarlanean ekimenaren antolakuntzan diharduten talde eta erakundeetakoak.

Lehen urteko ibilaldietan jende kopuru

handia ibili zen eta ondorengo denboraldietan, hasierako kopuruetara iritsi ez arren, parte hartzaile kopurua egonkortu da eta horri eusten zaio.

Urriaren 25ean hasi ziren aurtengo denboraldiari zegozkion ibilaldiak. Eguberriak eta aste santua bezalako garaiak kenduta, ostegunero izan dute jubituek hitzordua 10:30ean plazan. Guztira hogeita bederatzi irteera egin dira eta horietako bakoitzean elkarte edo talde ezberdin bat arduratu izan da horrelako

ibilaldi batek eskatzen dituen lanak egiteaz. Alegiako bi ikastetxetako ikasleak, Jubilatuen elkarteak, Nagusilan eta eliza izan dira ardura hori izan dutenak. Ibilbideak prestatu, trafikoa gelditu parte hartzaileek errepidea segurtasunez gurutzatu ahal izateko, gurgildun aulkietan daudenei lagundu, hamaiketakoak banatu... Giro ederrean egin dira irteera guztiak eta horren frogarik argiena parte hartze altua da.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie lehenik eta behin ibilaldie-

tan parte hartu duten jubituei, emandako erantzunarengatik eta baita antolakuntza taldeei ere. Horrekin batera, egun bereziak ere izan dituzte aurten Txintxarriak Martxan. Gabonetan eskolako haurrek bisita egin zieten adinekoek hamaiketakora eta inauterietan eskolako patioan egin zen ikasleen emanaldian izan ziren parte hartzaileak.

EKIMEN EGONKORTUA

Hirugarren denboraldia osatuta, jada herrian egonkortu den egitas-

moetako bat da Txintxarriak Martxan. Irteeretara joateko ohitura hartua duten adinekoek badakite urriaren amaiera aldera hasi eta uda iritsi bitartean badutela ostegun goizetarako hitzordua. Ariketa fisiko apur bat egin, beste adinekoekin harremanak izan eta ohitura osasuntsuei eustea, ibilaldiaren osteko hamaiketakoak barne, noski.

Horrenbestean, seinale ona izango da Txintxarriak Martxan ekimenaren denboraldi berrien hasieren eta amaieren berri ematea.

